

# Bezeroen segmentua

Gure proiektuan, zaborrarekin egiten denaren aurkakoa izango da bezeroen segmentua edo segmentazioa, ez da sailkapenik egongo, hau da, mota eta adin guztietako pertsonentzat zuzenduta doa.

Gainera abantailak emango dizkie pertsona zahar edo adinetuei, eta ez hori bakarrik, ume txikientzat ere abantailak izango dira.

- Adineko pertsonentzat abantailak:
  1. Ez dute denborarik galdu beharko zabor mota sailkatzen, berak bakarrik sailkatzen duelako.
  2. Lekua aurreztuko dute, zakarrontzi bakarra izanik, ez dira egongo hainbat kubo edo ontzi handi, horrek erosotasunean ere lagunduko du.
  3. Ez dute makurtzeko beharrik izango zaborra botatzean, zabor-ontziaren azpialdean, palanka motako oinarri bat izango duelako, eta, horrela, tapa automatikoki irekiko litzateke.
- Ume txikientzako abantailak:

Txiki-txikiek ez dute birziklatzeko beldurrik izango, ikasi baino lehenago etxean birziklatzeko aukera izango dutelako.

Beste hainbat abantaila gehiago ere izango ditu, komertzializatzean erakutsiko ditugunak.